

BERRIGARA

35. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, urriak 6

Kilometroak 91
Bergara

Guipuzcoanoan Euskera Aurretik

BANCO

 **Guipuzcoano**



GAMAK INFORMATIKA GAUZAK

- Ordenagailuak.
- Inprimagailuak.
- Ploters-ak
- Digitalizadoreak
- Sare Lokalak
- Osagarriak: disko gogorra, streamer-ak, modem-a
- Betelako materialak: disketak, etiketak,...
- Softwarea:
 - Kontabilitatea
 - Fakturazioa
 - Almazena
 - Abokatu bufeteak
 - Lursailen administrazioa
 - Kristaldegia
 - Nominak, besteak beste

T.P.V. BERRITASUNAK



(Eska ezazu azalpen saioa inongo konpromisurik gabe)

- POS-401 saltokiko terminala, diseinu zaindu eta goi mailako ikerketa-lan baten ondorioa.
- Erabateko soluzioa, funtzionaltasuna, elkargarritasuna eta prestazio bikainak, zure negozioa edozein dela ere.
- Dirua gorde, almatzenatu, fakturatu eta kontabilitatea eramaten duen saltokiko terminala.

KILOMETROAK-erako ESKAINTZA BEREZIA (BEZ-a sartu gabe) (91-10-14 rarte baliagarri)

XT ORDENAGAILUA

- RAMa
- 5 1/4 KO FLOPPYa
- 20 MB-ko disko gogorra
- 14" ko monokromoduna

PREZIOA: 80.000 pzta.

AT-286-12 ORDENAGAILUA

- MB bateko RAMa
- 5 1/2 eta 3 1/2 ko FLOPPYak
- 40 MBeko disko gogorra
- 14"-ko UGA monokromoduna

PREZIOA: 160.000 pzta.

AT-286-12 ORDENAGAILUA

- MB bateko RAMa
- 5 1/4 eta 3 1/2 ko FLOPPYak
- 40 MBeko disko gogorra
- 14"-kon UGA koloretako monitorea

PREZIOA: 185.000 pzta.

ARTZAMENDI 1,

BERGARA

TFNOA: 76 56 85

FAXa: 76 55 97

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil, Edume Arenaza

Publizitatea eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien, Edurne Arenaza,
Mikel Larrea,
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Jose Angel Mikeo, Estepan
Plazaola eta Juan Martin
Elxepuru

Kolaboratzaileak:

J. Oregi, A. Urzelai, Maripi
Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A.
Bengoia, Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Mikel Elkoroberezibar,
Josune Iñarra, Xabier Aranburu,
Aitziber Aretxaga eta Ainhoa
Bikuña, Arantzazu Oregi, Imanol
Sorondo, Andoni Sarriegi

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kiñu eta Pol-
Pol Mendizale Taldea

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada:

20.000 ale


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain
hartzeko aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkiki-
zunik.

Portadako argazkia:

KIÑU



5. Editoriala

6, 7. Asteko Berriak

11. Berriketari

12, 13. Atrebentzia ezpada

14. Urtez-urte

15, 16, 17. Non Zer

18. K. 91ren eskaparatea

21, 22. Erreportaia

28. Bertako euskeran

29. Beraiek diñoe

30. Erretratu zaharra



8 Joan den larunbatean, hilak 28, ospatutako *Herri Jailadia* Kilometroak 91ko Kultur Hamabostaldiaren barruan antolatu diren ekitaldietatik arrakastatsuen izan zen.



24 Kilometroak 91ko zirkuitoan aurkituko dituzun etxe eta beste erakuntza interesgarri aurkezten dizugu. *Berrigara* eskuan, disfrutatu ezazu gure herriko inguruaz.



26 Martin Ibarbia beasaindarrari zor diogu neurri handi batean Kilometroak jaia. Bera izan zen 1977an aurreneko aldiz Beasainen ospatu zen Kilometroetako antolatzaile nagusia.

Biltaki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



xey

PHILIPS



dekorazioa

Sukalde eta bainugelarako mobleria
Diseinua eta goimailako kalitatea
5 urteko garantia

Teknologia eta diseinua
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-
LINEekipoak
K-200 telebista berriak

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak
Alfonbrak, leiho-oihal, narruzko
sofak, tapizak,...
apaingarriak

San Pedro z/g
Tfnoa: 76 34 00

Barrenkale, 6
Tfnoa: 76 25 96

San Martin 2
Tfnoa: 76 43 51

¡Jai-giroan elkarturik!

Egun hauetan,
alaitasuna, poza, jolasa,
ilusioak...
gainezka dauzkagu.
Herriaren zati bat
garenez eta horrela
sentitzen garelako.
Herriarengandik hurbil
egon nahi dugu.
Horregatik bada,
egun hauetan
Jai-giroko Elkartasuna!

**Euskadiko
Kutxa**



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVREZKIA





Ongietorriak izan zaitezte Bergara honetara bazter guztietatik hurbildu zaretenok eta pasa dezagun egun eder bat elkarrekin.

Kilometroak ez dira zortzi!!

Egin beharreko kilometroak gehiago dira, gaurkoak gutxi batzuk besterik ez, bidea luzea bait da.

Alabantza guztiak merezi dituzte Kilometroak 91-ren antolatzaile eta laguntzaileek, lana izugarria izan delako eta urtebeteko esfortzua errealitate bihurtzera heldu direlako.

Hala ere, euskararen aldapa, tipi-tapa, ez da egun batekoa, gaur bezelako egun batek ez digu urte osorako indulgentzia ematen.

Ez dadila gaurko eguna euskal kareta jantzi eta kalera ateratzeko eguna izan.

Gaur egindako euskarak bihar ere euki dezala oihartzun garbia eta jarraipen etengabea, egunerokoa bihur dadila euskararen bidea eta ez urtean behinekoa.

JARDUN, langintza horretan jo ta ke ari da. Badakigu antzerako inizatibak inguruetan sortzen ari direla, eta bereauei orrialde honetatik gure agurra eta animoak luzatzen dizkiegu; egin behar honetan ere guztion partaidetza behar-beharrezkoa da eta. Gaur Kilometroak 91 aukera ezin hobea dugu bide horretatik denok batera jotzeko. Eta horrela...

Eguneroko lanean dihardugu, metroz-metro, euskararen bidean.

Tiiira ba!

Josu Okina



□ **Dohaintza**

San Esteban de Rivas de Sil (Orense) herriko *Jai Batzordeak* herri horretan uztailaren 6an egindako zozketaren 25.000 pta.k *Bergarako Udalarari* ematea erabaki du honek *Mizpirualde Egoitzara* bidera ditzan. Antza denez, herri horretako zenbait bizilagunek bertakien aldeko zozketako txartelak saldu izan dituzte gure herrian eta oraingoan saritutakoa agertu ez denez, dirua *Mizpirualde Egoitzari* ematea erabaki dute.

□ **Hauteskundeak**

Jubilatuetak *Gobernu Juntaren* aginte epea amaitu denez, junta berria eratzeko epea zabaldu da. Bihar astelehena, hilak 7, kandidatura ezberdinak aurkezteko epea amaituko da eta hauteskundeak urriaren 23an izango dira.



Polemika kartelekin

Astelehenean izandako Ohizko Plenoan, besteak beste, *Bergarako Udalak* *Zubieta* kalean zegoen *Onena* tindategiaren lokala erosteko erabakia hartu zuen. Udalak lau miloi inguru ordainduko ditu lokal horren gatik eta behin bertan behera bota eta gero espazio ireki bat utziko du hor. Era berean, 1990ko Kontu Orokorra onartu

zen. Erregu eta galdere-tan polemika sortu zen; *HBk* kritikatu egin zuen hauteskunde publikitate kentzeaz Udalak hartutako erabakia, komunikabideetan sarbiderik ez duten alderdiak baztertzan direla esanez. *Alkateak* erantzun zien Udalak ez duela horretaz erabakitzeke ahalmenik baina bai herria garbi edukitzeke ardura.

□ **Mendia Bizirik**

Kolektibo honetako kideek asteazkenean libre utzi zuten *Gorla* aldean bost egunez zaindu duten *gabirai* bat. Herritar batek jaso zuen *gabirai* honek ezkerreko hegalpean perdigoit batzuk zituen. *Mendia Bizirike*koek osatu eta indarberritu ondoren, esan bezala, asteazkenean aske utzi zuten lurralde epelagoetaruntz bidaia jarrai zezan.

□ **Kirol Zerbitzua**

Bihar, hilak 7, hasi beharko litzatekeen *mantenimendu gimnasia ikastaroaren* hasiera urriaren 21era arte atzeratu da.

□ **Zozketa**


945 zenbakiak *Kanarietarako* bi pertsonentzat bidaia irabazi du *Angiozarko* jaietako zozketan.



Sexolojia zerbitzua

Bihar astelehena, hilak 7, *Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* *sexolojia kontsulta* irekiko du anbulategian. *Bergarar* guztientzat zabalik egongo den zerbitzu berri honek sexualitateari buruzko informazioa, era guztieta-ko gomendioak edota sexu-terapiak eskeiniko ditu. Era berean, umeen heziketan lan egiten duten pertsoneri ere aholkularitza eskeiniko zaie. *Pilar Otegi* mediku eta sexologoak zuzenduko duen zerbitzu hau printzipioz abendurarte jarriko da martxan astelehen eta asteazkene-tan eta jendearen interesaren arabera erabakiko da bere etorkizuna.

BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



Joseba txapeldun

Antolaketa bikain batekin joan den larunbatean gure herrian jokatuako Gipuzkoako Mendi Bizikleta Txapelketan bergararrek emaitza ezin hobekak lortu zituzten; nagusietan **Joseba Arietaleaniz-beaskoak** lortu zuen garaipena **Jose Mari Yurrebaso** eta **Aitor Garitano** bergararren aurretik. Jubeniletan,

Iban Altube oñatiarrak irabazi zuen, promozio-koan **Alex Sanchez** donostiarrak, beteranoetan **Joakin Aspiazu** izan zen lehena helmugan eta emakumezkoetan, azkenik, **Mari Karmen Larrañagak** lortu zuen garaipena. Aipagarri, era berean, emakumezkoen kategorian **Maria Jesus Lopez** bergararrak lortu zuen hirugarren postua.

Txinpartak

✓ **Aitor Zabaleta** gidari bergararrak irabazi egin zuen joan den igandean Gasteizen jokatuako **XX. Zaldiaraneko Igoera**.

✓ Joan den larunbatean Bergaran ospatuako Gipuzkoako Igerilarien festan **Gorka Gonzalez** bergararrak 90-91 denboraldiko 14 urteko igerilari hoberenari zegokion saria irabazi zuen.

✓ Festa horren aurretik 40 bat igerilarik triatloi proba jokatu zuten; **Ordizia K.E.**ko **Imanol Etxebarriak** irabazi zuen **Unai Alberdi** bergararren aurretik

✓ **Mikel Altuna-Peru Sagarna, Lide Sebal-Eneritz Arriaran, Vanesa Vaz-Naiara Garzia, Beñat Eguren-Aitor Arzelus, Jaione Zabala-Amaia Laguma, Sara Garitano-Julen Egaña, Mikel Bolibar-Xabi Zabaleta, Larraitz Barrenetxea-Giomar Fernandez, Tzeitel Martin-Karlos Gonzalez, eta Iker Gezalaga-Peli Iturrikastillo** izan ziren joan den igandean binaka jokatuako duatloian irabazle gertatu ziren bikoteak.

✓ **Azpeitia Everest 91** espedizioak ezin izan zuen bere lehen saiakeran gailurrera heldu jotzen zuen haize fuertegatik. Ea **Amaia Aranzabal** bergararrak eta bere lagunek hurrengoan lortzen duten.

Solasaldian

Asteartean mahai inguru guztiz interesgarria eskeini zuten **UNEDeko** Aretoan **Sabino Padilla** Banestoko medikuak, **Unsain** Ikas Pilota proiektuaren arduradunak eta **Marino Lejarretak**, guztiek **Mikel Olazabal** ETBko kazetariaren eta bildutako jendearen galderi erantzunez. Marinok eta Sabinok txirrindularitzari

buruzko zenbait sekretu argitu zituzten bitartean, Unsainek pelotak ikastetxeetan jasaten duen diskriminazioa salatzen zuen. Anekdotak bezala, aipatu dezagun **Marino**, ataskoren bat tartean, ia ordu erdi berandu heldu zela. Ia kontrolatik kanpo....



IRAURGI

Ateak
PVC Leihoak
Soluak

Kruz Gallastegi 7 Tfnoa: 76 03 96
BERGARA



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

Umore onean

Kilometroak-en inguruan antolatu den Kultur Hamabostaldia-aren barruan era askotako ekitaldiak antolatu dira Bergaran.

Duda barik hamabost egun horietan ikusmin haundiena sortarazi duen ekitaldia joan den larunbatean, hilak 28, frontoian burututako Herri Jaialdia izan da.

Frontoia jendez gainezka zegoen herriko hainbat talde eta pertsonaiaren saioak ikusteko. Josu eta Jokin trikitilariak, Eduardo Muruamendiaraz dantzaria, herriko bost bertsolari, Asier Agirreña eta Jabier Garitano txiste kontalariak, Moises Azpiazu dantza taldeko bi bikote, Alai taldea, Bergarako Txalaparta Jotzaileak, Kikio sudur-flautaria, Ameslariak eta Urretxindorrek taldeak, Iñaki Arriaran abeslaria eta Xamatx Dantza Taldeak hiru ordu luzetako saio hunkigarria eskeini zuten.

Aranzadi Ikastolako hiru haur taldek Kilometroak 91ko hiru abestiak kantatu zituzten, ofiziala eta beste biak. Juan Martin Elexpuru eta Maite Aristegik ere bikain bete zituzten aurkezpen lanak.


Jaialdiak eman zuenaren zati-txo bat orrialde hauetan erakusten dizugu.



Izaskun Labaienek konposatutako Kilometroak 91ko abesti ofiziala, argazkian ikus daitezkeen haurrek kantatu zuten.



Moises Azpiazu dantza taldeko bikote bat jira ta bira tabladu gainean.



Maite Aristegi eta Juan Martin Elexpuru aurkezle lanetan. Datorren urtean Zinemaldian.



**ARGAZKI
18 URTEAN
ZURE
ZERBITZUAN**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Nikon

MINOLTA
PENTAX


Canon

YASHICA



Banatzaile ofiziala
■ Errebelatu azkarra
■ Laborategi profesiona-
laren garantiarekin





Asier "Gabirixa"-k barre algara galantak erazi zituen.



Alai taldea abesbatzak ahots ederrak dituztela argi geratu zen. Emakumezkoen falta nabaritu genuen hainbeste gizonezkoen artean.

Zazpi urteko mutikua zan eta maistrak esan jao: "gaurko esamiñerako dibujua ein biou; hemen daukazue papera eta boligrafua...,ta bihotz bat dibujaukou"

Mutikuak, malizia gutxiak, eta batek kuadraua ein, beste batzuk erredondo-txuaua, eta zazpi urteko mutikuak bihotza hankekin...

Eta maistrak:

- Mutiko honek gaur be papeleta edarra dauka hemen. Aber etorri deila hona!...Aber Josetxo, nola dibujau dozu hau hemen!, gaur be suspensua daukazu, bihotza hankekin!!

- Ba neri ez suspendidu eh, atzo gure aitak amai esaten zotzan: "Bihotza, zabal duizuz hankak"



Ameslariak. 20 urte izango dira jotzeari utzi ziotela. Herri Jaialdirako berriz ere bildu eta emanaldi paregabea eskaini ziguten.

CITROËN ZX

Jaiotzatik txapeldun




CHAPIME
 Tailerrak, koop. elk.
 Mug.
 Deba Garaiko
 Kontzesionario
 ofiziala.

Agente-sarea:

Bergaran:
 ION S.A.
 automobilak

Oñatin:
 ERLE
 garajea



OPEL VECTRA AZALDU NAHI

M.CANN

**INGENIERIA
ALEMANA NAHI NUKE**
Vectra. Opel ingenieria aurreratuena. Fidagarritasunez, ekonomiaz eta errendimenduz eredu.

**EKIPAMENDU
OSATUA NAHI NUKE**
Gidatzea atsegingarri izan dadin. Segurtasunik handiena.

**PREZIO ONA
NAHI NUKE**
Aukera ezazu zure Opel Vectra.

AURRERA
1.993.500* pzta.tik

* Fabrikanteak aholkatutako prezioak (Penintsula eta Balearretarako). Garraio a, BEZa, eta entregatu aurreko gastuak barne. Taldeko salmentak, Galde ezazu Opel Kontzesionario Ofizialean. Finantzaketa eta Leasing baldintza bikainak, Opel Crediten eskutik, Opel Leasing eta Opel Renting.



Zain gaituzu

GIPUZKOAKO OPEL SARE OFIZIALA

Esperientziaz onenak

OPEL 
Kontzesionario ofizialak



Urretxindorrak berriro zuzenean

- *Noiz sortu ziñuen taldea?*

- 1966tik 67ra bittartian ekin eta 1972ra arte plazarik-plaza ibili giñan. Tarte horretan bost disko txiki kaleratu giñuzen. 1968tik 70ra bittartian asteburu dantetan, bai larunbat bai igandean geratu be egin barik ibili giñan, Bizkai-xan batez be.

- *Hogei urte ixilean egon ondoren, nola okurritu jatsuen berriz be zuzenian agertzea?*

- Kilometroetako antolatzaileak etorri ziren festibala antolatzea nahi zebela eta gure laguntasunan eske. Asko pentsau ta gero, baietza eman gontsen. Guk argi geunkan, berriz be urtengo bagina hortarakotxe izango zala, ikastola edo eta euskara bultzatzeko izango zela.

- *Nondik dator Urretxindorrak izena?*

- Don Serafin Esnaolai okurridu jakon izen hori, haretzek ipini zoskun. Hasieran, Txoriñak eta Txontak izenen artean dudan zeuan. Baiña entsaiu baten entzun eta, zuek urretxindorrak baino hobeto kantatzen dozue eta handik Urretxindorrak.



Raul Calvo, Julio Unamuno, Juan Mari Narbaez eta Gotzon Bikuña: Urretxindorrak. Orain dela 25 urte herri-herri kantuan ibilitako taldea, berriro ere plazaratu da. Kilometroetako Kultur Hamabostaldiaren barruan Joan den larunbatean antolatutako Herri Jaialdian hogei urteko ixilaldia apurtu zuten.

- *Hirurogeigarren hamarkada amaieran euskal kantagintzaren Hit Paradean egongo zineten?*

- Euskeraz egiten ziren diskuen artian beti geunden buruan, gaztelera esaten dan moduan "arrasábamos". "Aitorren hizkuntza zaharra" disko-tik 30.000 ale saldu giñuzen. Guk duro bat disko-ko kobratzen giñuan.

- *Euskaraz kanta-tzeagatik problemarik izan ziñuzten zentsurarekin?*

- Buenooo, jaialdi guztietan guardiazibil bi jartzen ziren magnetofoiarekin lenengo filan. Behin Bilbo Herri Irratira kantatzera joan giñan eta polizia agertu ta atzeko atetik hanka egin behar izan giñuan. "Aitorren hizkuntza zaharra" abes-

tia, zentsuraren esanetan "grabable pero no radiable" zen. Dana dala, Loiola Herri Irratian askotan kantau giñuan eta baita Bilbokuan be.

- *Eta fansak, jarraitzaileak ere ugari...*

- Garai batian karta piloa bialtzen zoskuen, beldurgarri. "Soy una chica de Legazpia, estoy enamorada de vosotros...", eta horrelakoak jasotzen giñuzen. Baña ligau oso gutxi, ezta pretendidu bez, laztan tonto bat bez.

- *Diskoak non grabatzen ziñuzten?*

- Madrilen, Philips-en. Lenengo diskoa bi ordutan grabau giñuan. Goizaldeko ordubietatik laurak arte.

- *Eta telebistan izan zineten inoiz?*

- Ez, sekula be ez. Behin telebisiñora joateagatik 60.000 pezeta eskatu zoskuen, euskeraz kantatzen giñualako, zapatu gabian botatzen zeben Noche de estrellas programan agertziagatik. 60.000 pezeta ze zienik be ezekigun. Ateak izten zoskuen. Hala ta guztiz telebisiñuan ez agertu arren, 30.000 disko saltzia lortu giñuan.

Zuhaizti

AFARIAK:
Asteburuetan.
Aste barruan enkarguz.

Espalola 6, Tfnoa: 76 59 22
BERGARA





**GRUPO
VITALICIO**


Ibargaral, 29-31, etxebehea.
Tfnoa: 76 53 46 / 47
BERGARA

**SEÑORIO
DE OJEDA
Ardoak**

**LOPEZ OJEDA
HNOS. S.A.**

Tfnoa: 76 27 76/ 76 38 52
BERGARA

**Kilometroak ikastolei
laguntzeko erarik onena da?**




Sebas Etxeberria
15 urte, ikaslea

Neretako ondo dago, diru
asko biltzen delako kamisetak,
pegatinak... etab. salduaz.



Ander Azkargorta
27 urte, injeniaría

Bai, euskaldunak biltzeko
egun bat delako, formula ondo
pentsatzen zait.



Jokin Doblás
33 urte, langilea


Ez, ikastolara joan nahi
badut ordaindu beharra dauka-
dalako, euskera ikasteko ez
litzateke ordaindu behar.



Maria Jose Sagasta
39 urte, etxeoandrea

Onena ez dakit, ondo
badago jende asko biltzen
delako.

MAYC



**ETXERAKO
ELEKTRAGAILUGINTZA**

MAYC, S. A. Ahumategi 3, P.K. 29.
Tfnoa: 76 32 42. Faxes: 76 02 47. Telegr.: MAYC.
Telexa: 38.729 MAYC E.
20.570 BERGARA

Otsein

Gaur Kilometroak egunean euskeraz, eta bihar?



Edurne Sotil
34 urte, administraria

Bihar berdin, nik normalean euskeraz egiten dut.



Jose Angel Alkorta
40 urte, agente komertziala

Bihar igual, guk egunero etxean euskeraz egiten dugulako.



Mertxe Balzategi
61 urte, etxeoandrea

Euskeraz egin behar baina gazteleraz errezagoa da eta horretara jotzen dugu askotan.



Aritz Egidazu
19 urte, langilea

Astlehenean beti bezala euskeraz. Bai lanean, etxean edota lagunartean.



LETE TOLDOAK

Kataide POL/IND. 14. Pab. Tfnoa: 79 23 83
Faxa: 77 04 45 ARRASATE
Zubieta 36, Tfnoa: 76 12 24 BERGARA

FS

oto istema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN KILOMETROAK EGUNEAN ZABALIK.

- Diapositiba errebelatzeak.
- Karneterako argazkiak momentuan.
- Argazki materialen salmenta.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

ARRASATE



LASAGABASTER


TFNOA: 79 13 55 - 79 27 27

Zure konfidantzako denda

Beasain 77 - Bergara 91

<p>BEASAIN - 77</p> 	<p>ZUBIETA - 78</p> 	<p>LOIOLA - 79</p> 	<p>TOLOSA - 80</p> 	<p>ARRASATE - 81</p> 
<p>HERNANI - 82</p> 	<p>DONOSTIA - 81</p> 	<p>ERRETERIA - 84</p> 	<p>LEGAZPI-URRETXU-ZUMARRAGA - 85</p> 	<p>DEBA - 86</p> 
<p>ZARAUTZ - 87</p> 	<p>IRUN - 88</p> 	<p>OÑATI - 89</p> 	<p>ANDOAIN - 90</p> 	<p>BERGARA - 91</p> 

* Beasainen ez zuten logotiporik erabili.



LAGUNTZA KANPAINA

MULTIOPTICAS-en ABANTAILAK

MULTIOPTICAS

J. Larrañaga
OPTIKA

URRIA Jubilatu eta Pentsionistak

- DOHAINEKO begi berrikustapena azken teknologiko tresneriez.
- Betaurrekoak kristal eta guzti, urruti edo gerturako, 5.900 pta.
- Bifokal betaurrekoak, 9.600 pta.
- Kalitate handiko kristalak eta egun eguneko armazoiak.

**CANARIASera
BIDAIEN ZOZKETA**















BISITA GAITZAZU!

San Pedro, 22 - Tel. 761575 - BERGARA
 J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 792995 - ARRASATE
 J. M. Barandiarán, s/n. - Tel. 889988 - ORDIZIA
**MULTIOPTICAS taldeko bakarrak
 DEBA eta GOHIERRI** Irako


TOKIA ORDUA	ARANZADI IKASTOLA SEMINARIQA	ARANZADI IKASTOLA MTEZ. DE IRALA	SAN MARTZIAL	POLIKIROLDEGIA	
egun osoan	Jolas parkea	Jolas parkea	bolatokia	Jolas parkea rokodroma	Polikiroldegiko Jangelan
9.30etan	Irteera				ordu 1etatik 3 t'erdietara
11.30etan	Mikel Markez abeslaria	Ondarruko erraldoiak	Musika Eskolako trikitilari txikiak	alpinismo taldearen erakustaldia	KAXIANO ETA BERE TALDEA
12.00etan	Gipuzkoako eta Nafarroako dantzak: - Oñati - Lizarra	Ramon Lizeaga abeslaria	Bizkako dantzak: - Berriz	Itziar Zamora abeslaria	
12.30etan		Lapurdiko eta Gipuzkoako dantzak: - Lapurdi - Antzuola	Herri Kirolak Perurena, Ostolaza eta Goenatxo harrijasotzen. Arrosplide eta Olasagasti alzkora. Nuarbe, Mutriku eta Eskorlatza sokatiran.	Arabako eta Gipuzkoako dantzak: - Gasteiz - Aretxabaleta	
13.00etan	Altxukutarrak (Zuberoko taldea)				
13.30etan		Mañukorta Telleria Egileor bertsolariak	Arantzazu Loidi Euzkitze Sarasua Peñagarikano bertsolariak	Lizaso Lazkano Larrañaga bertsolariak	Frontolko Jangelan
15.15etan	Kukubiltxo		Takolo Pirrutx eta Porrotx pallasoak	Sebastopoleko titriteroak	ordu 1etatik 3 t'erdietara
16.00etan		Arrasateko erraldoiak			ZABALE ANAIK (Euskadiko trikitilari txapeldunak)
16.30etan	Lapurdi, Antzuola eta Gasteizko dantza taldeak. Eta txistulari denak	Lizarra, Oñati, Aretxabaleta eta Berrizko dantza taldeak	Erromeria: Zabale anaiak eta Alkorta-Alerza trikitilarlekin	zirkuitoan zehar Ibiliko diren trikitilari denak	ALKORTA AIERZA (Txapelketan 3.ak)
17.30etan	Arrasateko erraldoiak dultzalneroenekin Larrain dantza	abeslari denak			
18.00etan	Egan taldea				


12.00etan: Boni Laekurain Enparantzan, xake-jokoa: Izeta maizua 25 jokalariren artean.
13.00etan: Santa Marina Eleizan, kontzertua: Udai Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoa.


KILOMETROAK 91

	SALMENTA
	ITURRIA
	IKASTOLA
	INFORMAZIOA
	IKUSKIZUNAK
	TABERNA
	KOMUNAK
	LARRIALDIK
	ATSEDEN LEKUA
	KONTROLA
	LARRIALDI IRTEERA
	BAZKARIAK
	SARRERA
	JOKUAK

IGERILEKUETAN KANPINA







Aitor Ibabe 18 urteko ber-
gararrak egindako logotipoa,
"Pittinka-Pittinka" izeneko bu-
ru gorria duen "K" urdina, i-
zan genuen 159 lanetatik onena
epaimahaikoen iritziz.

Abestia bestalde, hiru lagu-
nen arteko lanaren ondorioa
dugu. Letra Juan Martin Elex-
pururena da eta musika, berriz,
Izaskun Labaienek jarri dio
bere anai Xabierren laguntza-
rekin.

I
*Kilometroak dira ta
kale zelai ta aldapa,
gure hizkuntza ibili dabil
tipa tapa tipi tapa.*

II
*Udazkenean orbela
hegoaizetxo epela
euskararentzat esan liteke
udaberrian gaudela.*

III
*Aiton-amonak begira
badatorrela segida
irribarrea ezpainetara
negar malkoak begira.*

IV
*Intxaur piku ta gaztaina
Ai zein inguru apaina
aldapan gora doan euskarak
laster hartuko du gaina.*



Santiveri

IZADI

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

PILI GISASOLA

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

ERREKI

Erretegia

Berezitasunak:

Bixigua eta txuletak

Fraskozurl Enparantza

Tfnoa: 76 38 51



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65

BERGARA

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak


Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

GURE HIZKUNTZAREN NONDIK NORAKOA

EZAGUTZEKO BIDERIK ERRAZENA!

EUSKARA, EUSKALDUNON HIZKUNTZA

Joseba Intxausti



LIBURU DENDETAN SALGAI



Eusko Jaurlaritza

JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GALDASORO

BERGARA - OÑATI - LEGAZPI

**Udazken-negurako moda berria ikusgai
gure eskaparateetan:**

***Estilo ezberdinetako zapata,
bota eta botinak,
diseinu berrienetako boltsak, jakak,
eta bestelako narruzko jantziak.***

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:

RAMON IRAEGUI



**ORDEZKARIA
BERGARAN**

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA




VID-ART

Bidriera artistikoak

**BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.**

**Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.**



BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA • GIPUZKOA
Tfnoa: (943) 76 23 30 / 76 41 54

Antolaketa aldapa

Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak Santo Tomas egunean Kilometroak 91ren antolaketa Bergarako Aranzadi Ikastolari ematea erabaki zuenetik, hor ibili dira hainbat bergarar gora eta behera honelako ospakizun batek eskatzen dituen mila gauza lotu nahian. Azkenik, heldu da, eguraldiak laguntzen badu, bai kanpotarrek eta herritarrek ere ia urtebeteko lan horren fruituak jaso eta dastatzeko eguna.



Aranzadi Ikastolak aspaldi zuen Kilometroak-en edizioen bat antolatzeko asmoa. Aurtengoa antolatzeko Oiartzun-ekin batera aurkeztu zen baina azken momentuan Oiartzunek bere kandidatura erretiratu zuen baldin eta datorren urteko antolaketa ematen bazioten. Joan den urteko abenduan Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak bidea libre utzi zion Bergarako Ikastolari bere 20. urteurrenean azken urteotako ametsa behingoz gauzatzeko.

Herriaren partaidetza

Berehala martxan jarri eta honelako ekintza batek eskatzen duen lanari aurre egiteko, eginbeharrak hainbat talderen artean ba-

natu behar izan ziren, guztira hamar batzorde eratu zirelarik, sail bakoitzeko batzorde zuzentzaile bat osatuz. Horrela, Aranzadi Ikastolak zirkuitua, ekonomia, kultura, salmentak, publizitatea, tabernak, trafikoa eta muntaia hartu du bere kargu. Mariaren Lagundia Ikastola, bere aldetik, ikuskizun eta salmentez arduratu izan da hilabete hauetan. Batzorde guzti hauen gaitetik Batzorde Iraunkorra legoke, 8 pertsonaz osatua eta batzorde guzti horien kontrola eta jarraipena egin duena. Batzorde horiek urte osoan zehar funtzionatu dute 200 pertsona inguru mugituz, gaurko egunean, berriz, 2000 pertsona inguruk lan egingo dute zirkuituan eta herri kanpoaldean.

Aldapan gora naturaz gozatu

Antolatzaileek gure herriaren ikuspegi polita ematen duen eta *Igo tipi-tapa euskeraren aldapa* lemarekin bat datorren zirkuitua prestatu zuten gaurkorako. Dena dela, atsedenaarako eta zirkuituaz gozatzeko aukera ere izango duzue; zirkuituan lau atsedeen area izango dira eta bertan era guztietako zerbitzuak aurkituko dituzue: tabernak, komunak, larrialdiak, ikuskizunak, salmentak... etab. luze bat. Antolaketa lan talde bat zirkuituko landaretzaren erakusketan prestatzen aritu da; bidean zehar berrogei landare mota ezberdini izenak jarri zaizkie eta horrekin batera biotopo garran-

ELKAR

Harrurlaga 1, Behea
Tfnoa: 76 58 16

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak

HALTZARI

Fagor altzarien
banatzailea.
Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa 76 30 57 BERGARA

tzitsuenen deskribapena ere egin da. Beraz, zirkuituak larrarte eta txapartegiek (oteek, txilarrek, mazusta-sariek...etab.ek) basoan betetzen duten funtzioa ikusteko aukera ematen du eta naturak eskaintzen dituen bitxikeriak ere aurki daitezke, biziz beteriko enbor zaharrak, enbor horien gainean irtendako urki sendoak edota haritz gaineko mahatsondoak, esate baterako.

Dirua nora

Kilometroak 91ren antolatzaileen aurreikuspenak betez gero, herrialde ezberdinetatik etorritako 125.000 pertsonainguru bilduko dira gaur Bergaran eta aurtengo edizioan 45-50 miloi jasotzea espero da.

Salmenta eta laguntza ezberdinei esker jasoko den diru horretatik %20a Nafarroa eta Iparraldeko ikastolentzat izango da, beste %20 Gipuzkoako Ikastolen Elkartarako eta gainontzeko %60a



Batzorde Iraunkorra, ezkerretik eskumara: Sabin Urzelai, Iñazio Arregi, Jose Anjel Amasorrain, Jolanda Juaristi, Javier Ugarte, Jose Mari Beitia eta Arantzazu Narbaiza. Jose Mari Larrañaga falta da argazkian.

Bergaran geratuko da.

Bergaran geratzen denaren %80a Aranzadi Ikastolak jasoko du eta beste %20a Mariaren La-

gundia Ikastolak. Bihartik hasita, guztiok eguneroko aldapari egin beharko diogu aurre.

Kopuruen dantza

Honelako ospakizun batek zer nolako indarra duen ikusteko gaur antolatzaileek zirkuituan erabiliko dituzten zifrei begirada bat botatzea besterik ez da behar. Horra hor adibide batzuk:

- ✓ Ogiak: 10.000
- ✓ Oilaskoak: 2.000
- ✓ Litro ardoak: 7.500
- ✓ Sagardoa: 11.500 botila
- ✓ Ura: 10.000 botila haundi
- ✓ Zerbeza latak: 7.000
- ✓ Refreskoak: 8.000
- ✓ Barrikak: 240
- ✓ Kafea: 20.000 taza (200 Kg.)
- ✓ Patata tortilak: 2.000
- ✓ Txorixoa: 900 Kg.
- ✓ Solomoa: 750 Kg.
- ✓ Aparkalekuak 20.000 kotxe eta 400 autobusentzat
- ✓ Bazkariak 2500 lagunentzat.
- Menua: arroza, xerra purearekin eta fruta
- ✓ Biharko garbiketari ikastetxe desberdinetako 400 bat ikasle ari-tuko dira
- ✓ Kilometroak-ekin zerikusia duten 65.000 objektu inguru atera dira (kamisetak, aterkinak, motxilak,...etab. luze bat)

Eguzkia

Urriaren 6 honetako eguraldia izan da azken egunotako kezka nagusietakoa eta antolatzaileak, jakinean ospakizun honen arrakastaren erdia baino gehiago eguraldiaren menpe dagoela, zerura begira ibili dira egunotan eguzkia noiz irtengo zai. Jakin izan dugunez antolazaileetako batek arraultza dozena bat, Kilometroak-eko 4 litro ardo eta musika kaseta ere eramán dizkie Monja Zaharrei. Eta ez da bakarra izan... Herri agintariei bezala, eguzkiari ere gonbidapena luzatu nahi izan zaio.



Gaspar

Jatetxea, Txokolategia, Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



LIBURU ETA PAPERDENDA
BIDAIRAKO ETA NARRUZKO ARTIKULUAK
Iturriotz,4. Tel. 791484
20500 Arrasate-Mondragón

BERGARAKO UDALAK KULTUR ETA ONGIZATE SAILETAN ESKEINTZEN DIZKIZUN ZERBITZUAK

ONGIZATEAN

- Enplegu dinamizazioa
- Drogomenpekotasunaren prebentzioa
- Emakumearen laguntza
- Haurraren laguntza
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzua
- Zaharren egoitza

KULTURAN

- Liburutegia
- Artxiboa
- Museoa
- Bideo tailerra
- Argazki tailerra
- Erakusketak
- Ludoteka
- Hezkuntza: oinarrizkoa, erdi mailakoa, iraunkorra, IMI eta euskara
- Kirola (Ikus iragarkia)



BERGARAKO UDALA



BERGARAKO UDAL KIROL ZERBITZUAK

1991-92ko ohizko ikastaroen programa

aurkezten dizu:

✓ Gazte eta nagusientzako iharduerak:

igeriketa, tenisa, mantenimendu gimnasia eta jazz gimnasia.

✓ Udal kirol eskolak:

Atletismoa, badmintona, eskubaloi, gimnasia, igeriketa, karatea, kirol-askotakoa, pelota, saskibaloi eta xakea.

**Anima zaitetz eta sar ezazu
kirola zure bizitzan!**

Informazio gehiago: Udal Kirol zerbitzuan (Udaletxean 76 39 42/3/4)


Laureaga (Etxe Haundi)

XV. mendearen erdi-aldean eraikitako bikain landutako harrizko jauregia. Ataburuaren bi aldetan, egin-arazi zuen Martin Fernandez Izagirrekoren eta horren emaztearen irudiak, eta eskuin-aldeko leihoko burdinasaretan, heriotzarekiko jarrerari buruzko idazkun zuhurra: "*Ni la busques ni la temas*".



San Martzial

Bergarako erromeriarik ospetsuena egiten deneko ermita. Jai-eguna "*letania*"-ibilaldiarekin eta urteko erregerreginak izendatzearekin hasten da. Ermitapeko enparantza eta inguruko zelai eta ostopo guztiak betetzerainoko bazkaltiar-talde, jaieradun eta dantzazale-piloak bildu ohi dira egun osoan bertako berebiziko jai-giroaren gogotan. Ermita ondoko iturriko ura azaleko gaitzak sendatzeko ona omen da eta, oraindik aspaldi gabe, gaitzak hartutako aldea bertan bustitako zapiz garbitu eta zapiak inguruko sasitan uzteko ohitura zegoen.



San Martinen Oroitarria

Zurraga gainean. 1597 garrenean Japongo Nagasaki-n gurutziltzatua martiri izan zen eta ezagutu zuten guztiek diotenez Bergarako seme zen Martin Agirrearen omenezkoa da, eta hori Santu aitortu zutenekoaren mendeurrena ospatzeko jarri zen, Simon Arrietak ondutako taiuaren arabera.



San Martzialko ermita eskuman eta ermita ondoko iturria goiko argazkian.



**Banco
Hispano
Americano**



Agarreko Garaixea

Bergaran "trojia" deritza, eta Bizkaian horrelako hainbat badago ere, Bergarako hau Gipuzkoan orain dagoen bertako eta era horretako aletegi bakarra dugu. Zurezkoa da, eta arestian berriztatu zen.

Labegaraieta

Alde horretan, orain Kiroldegia dagoen tokian, besarkatu zuten elkar, Maroto eta Espartero jeneralek ("Bergarako Besarkada") bi aldeetako gudarien aurrean, bigarren Karlista-gerratea bukatu zenaren adierazgarri.



Ozaeta

Izen bereko familiak Gasteiztik zetorren artilearen itsas-portuetarainoko bideko zubia zaintzeko egindako dorretxe zaharra ibaiaren beste aldean zegoen, eta bertako jaun gaztearen izena Arrasateko Erreketaren kantetan aipatzen da. Bertako familia eta Gabiria etxekoa elkarrekin borroka bizian ibili ziren luzaroan. Oraingo jauregia egiteari 1549 garrenean ekin zitzaion.

Gabiria

XV mendearen erdi-ingurukoa, eta Endrike IV.ak inausiarazitakoetakoa. Hiria menpean zuela, bertakoak Ozaetatarren etsai sutsu izan ziren, herriko biztanleak erdibanatu-araziz, hareik eta Errege-Erregina Katolikoek 1490 garrenean onezkoak egin zitzaizela eta "aurrerantzean ez dedila Ozaetatarririk ez Gabiriatarrik izan" agindu zuten arte.



Gabiriakoak Ozaetatarren etsai sutsu izan ziren, herriko biztanleak erdibanatu-araziz.

**Testua:
Arantzazu Oregi**



Jatetxea

ZABALA

Ostatua

Labegaraieta BERGARA Tfnoa: 76 20 07 - 76 42 57

Kilometroak-en sortzailearekin

Martin Ibarbia:

"Vietnameko soldaduak Californiara etorri zirenean horrelako jaialdi bat eskaini zieten"

Kilometroak Gipuzkoako ikastolen jaia norbaiti zor badiogu, neurri haundi batetan, Martin Ibarbiari zor diogu. Berari eta beste beasaindar bati, Josu Erguini, hain zuzen ere. Bigarrenak ideia Estatu Batuetatik ekarri eta Martinek Euskal Herrian praktikan jarri zuen.

- Hitzegin dezagun 1977ko Kilometroak-i buruz. Nola bururatu zitzaizuen horrelako ideia bat Euskal Herrian martxan jartzea?

- Garai hartan, Ikastolaren sorreran, beti zegoen diru beharra eta orduan herri mailako zozketa ugari egiten ziren sosak biltzeko. Baina jende asko inplikatu eta nazkatu egiten zen boletoak saltzen, eta azken finean 100.000 pezeta irabazteko. Horixe zen arazoa, beti eskale bezala ibili behar genuela bata bestearen atzetik. Momentu hartan izugarriko fedea zegoen Ikasto-

laren, azken finean gu geu, euskaldunok sortzen ari ginen sistema berri bat zen eta bazegoen hor mistika bat ere horren atzetik joateko. Baina, hala eta guztiz ere, oso neketsu gertatzen zen.

- Beraz, ikastolentzako finantziabide berriak topatzeko ahaleginetan formula majikoarekin topo egin zenutela esan genezake?

- Bai horrela demostratu du denborak.

- Kontaiguzu nola okurritu zitzaizuen



Kilometroak Euskal Herrian egitea.

- Gertatu zen, Josu Erguini, beasaindarra bera, eta biok behin juntatu girela hizketa arruntean, zozketak zirela eta ez zirela eta Ikastolaren egoeraren inguruan eta berak esan zidan nola Esta-

tu Batuetan, berak UBI egin bait zuen bertan, Vietnameko soldaduak Californiara etorri zirenean horrelako omenaldi bat egin zitetela. Omenaldi ekitaldia, noski, era amerikarrean egiten zuten, alegia, zirkuito batetan festa antolatu, soldaduak hantxe, diskurso patriotikoa, hau ta beste-a..., baina nobedade batekin: hara joateko ordaindu egin behar zen. Ez zen ekitaldi libre bat, horren atzetik problematika bat zegoenez (Vietnametik zetozen soldadu batzuk elbarriak ziren, beste batzuk droga arazoak zituzten, e.a.), dirua lortu beharra ze-

"Gure gerra ez zen Vietnamekoa, baina bai euskara"

• D. Fleming 3
Tfnoa: 76 15 24
BERGARA
• Kalealdea 13,
ARRASATE

CCIL
CARASA, CILVETI, LACORT eta Konp., S.A.

MOETA GUZTIETAKO ASEGURUAK

• Juanjo Gisasola 6
EIBAR
• Bergara kalea 2,1.
DONOSTIA

goen horiei laguntzeko.

Sakonera joanda, esplikazio psikologikoa badu ekitaldi era honek: protestantismoaren eragina. Ekintzak antolatu, baina beti ekintza positiboak, hau da, dirua tar-tean dagoela.

- Beraz Josu Er-guinek ekitaldi hura hona inportatu egin zuen?

- Bai, berak esperien-tzia hura kontatu eta ea horrelako zerbait hemen egin zitekeen galdetzen zidan. Ni etxera joan eta buruari bueltak ematen hasi nintzen. Joño, he-men badaude parametro batzu neurtu behar dire-nak. Egia esan, orainarte denbora asko behar dugu diru gutxi jasotzeko eta hemen behar duguna al-derantzizkoa da: denbo-ra gutxian diru asko ate-ra. Eta hemen posibili-dade izugarria aurkitzen genuen, ordura arte se-kula-santan presentatu ez zena: ekintza labor batekin etekin haundia ateratzea.

- Formula eskue-tan, ideia gauzatu beharra zegoen. Hor-tik aurrera nahikoa lan...

- Horrela da Estatu Batuetan erabiltzen zen formula hari buruzko xehetasunak ondo azter-tu ondoren, eskema bat

garatu nuen: zirkuito ba-ten jende multzo bat bil-tzen baldin bada eta ba-koitzak diru bat ipintzen badu, derrigorrez dirua atera behar da. Eta geuk zer egin dezakegu, esa-ten nion neure buruari. Ba zirkuito baten barru-an hainbat ekintzajosta-lariak ipini egun eder bat igarotzeko. Guk ez dauzkagu Vietnameko gudariak, baina badau-kagu aitzaki bat. Gure gerra ez zen Vietname-koa, baina bai euskera, horixe zen gure aitzakia.

Zirkuito bat antola-tzea ez zen zaila, zerbit-zuak jarri, ekitaldiak antolatu...

- Kilometroak-en antolaketan komun-ikabideek lagunta-sunik eskeini zuten?

- 1977an euskeraz e-giten zuen emisora ba-karra Loiola Herri Irratia zen.

Honela bildu ginen Beasainen bertan, Joxe Mari Iriondo eta Jose Ra-mon Beloki eta hirurok,

"Protestantis-moaren eragina nabaria da"



Olariagak Beasaingo Kilometroetarako egindako kartela

eta mahaiaren inguruan eserita bideratu genuen estrategia minimo bat komunikabideetara a-zaltzeko. Kilometroak izena bera, Jose Ramon Belokiri bururatu zitzaio-n.

Baina noski kontutan izan orduko beste komu-nikabideak zeintzuk zi-ren: Diario Vasco, etsai; La Voz de España, zer e-sanik ez... Beraz, gure komunikabide bakarrak Loiola eta Donostia Herri Irratiak ziren, eta Egin e-gunkaria ere bai. Maria-no Ferrer, Egineko zu-zendaria zena ikaragarri ondo portatu zen gure-kin.

- Kartelak, logoti-

poak, horrelakorik egin zenuten?

- Logotiporik ez, kartelak, ordea, egin zi-ren. Antton Olariagak e-gin zigun kartel bat. Bai-na orduan beste komuni-kazio sistema batek fun-tzionatu zuen; kontura-tu ginen herriaren babesa bagenuela, herri bakoit-zeko Ikastolako juntak, bakoitzak bere ingurua berotu zuen.

- Bukatzeko Mar-tin, zu zeu igandean Bergaran izango zaitugu?

- Ez dut urte bat bera ere hutsegin eta aurten, Kilometroetan Bergaran.



IPIÑARRI ZERRATEGIA, S.L.

Pinuaren lanketa eraikuntza, arotzeria, moglegintza, enbalaje, etab.erako

Ibarra z/g, Tfnoa: 76 15 93, P.K. 184 20.570 BERGARA

Hau dok barreguria!!

Bergara aspalditik da binotero herrixa. Manso, Lopez, inguruko ardao-fabrikarik onenak dare hemen. Binoteruak beti izan dabe kimiko on famia. Itxuria Jesukristok ura ardao bihurtu zebanetik askok jarraitu dau haren ejenplua.



Begarako binotero zaharrari ailegau jakon hiltzeko ordua. Azkenetan zeuala deittu zotsan seme nagusixari eta kontau zotsan ardaugintzan sekreto guztiak. Gero, trunkilduta hiltzeko gertau zan. Ixa azken arnasan zeuala, derrepente esnatu, deittu eta esan ei zotsan semiai:

- Hi, sekretoik haundixena ahaztu jatak: ardaua, estuasunian mahatsakin be egin leikek.

J. M. Elexpuru

Herriko euskeran eskribidu, zergatik ez?

Jende asko kejatzen da gaurko gaztiak (eta ez hain gaztiak) ez gatz eta ez berakatz daukan euskeria egitten dabelako. Ez herrikua, ez batua, ez iñungua. Gero eta nahastuago dago herri-euskeria eta gero eta nekezago topatzen da, Deba barruan behintzat, bertako euskeria tajuz egitten daben jentia.

Eta pena haundi bat da. Bertakua dakixenak eztauka bape problemarik batura salto egitteko. Bixak ondo ikasi leizke, bertakua etxian, ikastolan (neurri baten), kalian, herriko komunikabideetan erabiltzen bada, eta batua liburuetan, telebisiñuan e.a.

Berbetia ezta komunikatzeko bakarrik. Berbetan disfrutau be egin bihar da, jolas egin, bakoitza «etxian moduan» sentidu bere jardunian. Eta berbiak barru barrutik urtetzen doskunian, orduan arnasia bezelakua da, berezkua, naturala. Eta hori txikitatik ondo geureganduta daukagun berbetan dihardugunian pasatzen da. Eta «hika» bagabitz onddio gehixago.

Baña gaur egunian berba egittia

ezta nahikua, eskribidu be egin bihar da. «Berrigara», «Arrasate Press» eta beste errebista batzuk dauzkagu hemen, baina gauza gutxi eskribitzen da bertako euskeran. Eta eskribidu egin bihar litzake nere iritiziz, eta ez bakarrik txistiak. Danetik eta asko. Izan be eztauka sentidu haundirik gure aittajaunari egindako entrebistia batuan agertziak.

Bada jente bat hasiko litzakena baiña atrebitzen ezdana ohittura eta norma faltaz. Hau ikusitta beharrezkua litzake honekin konforme garen inguruko euskaltzaliok alkartu eta ikastarotxo bat gertatzia. Normak ezarri beharko dittugu lenengo: «h» bai ala ez., kontrañuekin zer egin, berba barrixak erabili ala ez, deklinabidia, aditza, e.a. Danondako balio daben norma batzuk jarri biharko die eta gero herri bakoitzeko berezitasunak errespetau.

Eta zenbaitti belarrira esan bihar jako, oso fuerte, herriko euskeria eta batua eztiela kontrarixuak, errekatxua eta ibaixa eztien bezelaxe.

J. M. Elexpuru

YAZKI

UME

GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3
Tfnoa: 76 16 54

Ibargaral 8
Tfnoa: 76 54 73

BERGARA

BERGARA PIEL

**Egun-eguneko
moda
preziorik onenean**

Etorri eta ikusi bakeroen sail berria. Ospe haundiko markak: Lewis-Bonaventure - Diesel - Carroche

Espaloia 6 TFNOA: 76 20 70
BERGARA



**Kilometroak 91
une egokian
bezain larrian
ospatuko da**

Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, izen desberdinak helburu eta esanahi berdina. Aurten, Kilometroak Bergaran dute kokagune. Egia esateko, egoera berezian eta egokian ospatuko da. Gernikan Ibilaldia ospatu zenean, Jaurritzako Kontseilari berria estrenatu zen. Hilabete bakar batzu besterik ez dira igaro eta Kilometroak Kontseilari berri bat ezagutuko dute. Aurrekoarekin ildoa aurkitu ezinean aritu ondoren argi pittin bat ikusi genuenean, berriro ezagutze lanetan hasteak galera handia ekar liezaioke Ikastola mugimenduari.


Une larrian ospatzen dira aurten Kilometroak. Beno, Ikastola mugimenduak beti izan du etengabeko larritasuna. Baina beti egin du aurrera.

Hezkuntza Lege Berriaren aplikapenak dakarren konpromesua eta Euskal Eskola Publikoaren zer edo zerak sortzen duen geldikortasuna aski dira, buruko mina sortzeko.

Egoera guzti hontaz jabetuko da Bergaran ospatzen den Ikastola eta Euskara zaleen jaialdia. Guzti horren oihartzuna izan behar du. Aipatu ditugun urteroko ekintza hauek, behar beharrezkoak dira oraindik ere. Inoiz baino beharrezkoagoak dira.

"Euskara dugu gure lorea / mintegia Ikastola / Euskal hazia erne erazteko / hautsiaz erdal eskola / Beti euskaldun gerta dakigun / Euskalerriko odola / Igo dezagun tipi-tapa / Euskararen aldapa".

Andres Osa "Sakona"
(Ibilaldia 91ko koordinatzailea)



**Kilometroak
91, Bergara**




Ez da gauza erraza garai honetara iritsi eta Kilometroak-i buruzko gauza berririk esatea, komunikabide guztiak gaiari buruzko albitez bete-beterik egon ondoren.

Edozein modutan ere, atzera begiratu eta konturatzen gara urtarrilean, Kilometroak 91 Bergaran egitea erabaki zela jakin genuenean, hain urrin ikusten zen urriko hila bertan dugula, denbora oinezuen pare joan dela eta Kilometroak 91ren ospakizunaren atari-atarian gaudela.

Kilometroak 91, hutsean lan egin duten hainbat eta hainbat bergararri esker antolatu da, beren eguneroko lana amaitu eta, gorputz eta arima, 110.000 lagunentzako egun batetarako zerbitzuak antolatzeari ekin dioten ehundaka andra-gizoni esker.

Eskerrak ematea baino ez zait, beraz, geratzen: bai aipatu ditudan bergarar horiei, bai beren laguntza eskaini diguten elgetar eta antzularrei eta baita aurreko urteetako Kilometroak-egunak antolatzen jardun dutenei ere, gure antolaketarako eskaini diguten informazio guztiz baliagarriatik. Hitz batean, gure eskerrik beroenak Kilometroak-en hamabosgarren edizio hau Bergaran antolatu ahal izateko laguntza eman duten guztiei.

Jose Mari Beitia
(Kilometroak 91 Batzordeko Burua)



**PRESOAK EUSKADIRA
MANIFESTAZIOA**

Eguerdiko ordu 1etan Herriko Plazan





Kilometroak 77. Beasain

Hamalau urte pasa dira Kilometroak lehenengo aldiz egin zenetik. 77ko ekitaldi hura Beasaingo Alkartasuna Lizeoko (Ikastola/Lizeo) Batzordeak antolatu zuen gaur egungo lizeoa eraikitzeko. Ideia, Jexux Mari Erguinek ekarri zuen Estatu Batuetatik. Berarekin batera, Joxe Martin Ibarbia eta Batzorde osoa saiatu zen antolatzen.

Euskal Herriko agintari demokratikorik ez zegoelako, J.A. Zaldua Ikastolen Federazioko Lehendakariak ebaki zuen zinta goizeko 9etan.

15.000 pertsona inguru ibili ziren 6 Km. inguruko zirkuituan eta dirutan 15.000.000 inguru (gordina) bildu zela uste dut. Garai hartan guztion lehia ahalik eta kilometrorik gehien egitea izan zen prezioa merke jarrita. 40 eta 45 Km. egindakorik ere bat baino gehiago izan zen.

Horri esker estreinatu zen egungo Alkartasuna Lizeo berria 30 ikasgela eta laborategiekin. 4. O.H.O.tik UBIraino ikasten dute bertan 800-900 ikaslek.

Andoni Sarriegi

Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzburua



**ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

120.000

ENTZULE

EGUNERO

EUSKAL

HERRI

OSOAN



ADI PROGRAMAZIO BERRIARI




EUSKADI
I R R A T I A

Esan eta izan!



Irargi

Euskadiko dokumental
Ondarearen Zentrua



Eusko Jaurlaritzak
TURISMO ETA KULTURA SAILA